


EUSKERA

APIRILA MAIATZA EKAINA 2019



AZKUNA  
ZENTROA  
ALHÓNDIGA  
BILBAO

Bilbao

# Mujeres, dones, mulleres, emakumeak liburuaren aurkezpena



Maite Albiz Emakumeen Dokumentazio Zentroak *Mujeres, dones, mulleres, emakumeak* liburuaren aurkezpen-ekitaldia egingo du Azkuna Zentroan.

Liburuan, nazioarteko hainbat unibertsitatetako hogeikertzaile entzutetsuren lana bildu da, eta agerian jarri da emakumeei eta generoari buruzko historiografiak gaur egun duen berrikuntza teorikoa eta metodologikoa.

*Mujeres, dones, mulleres, emakumeak* Mary Nash historialariari egindako omenaldia da, haren hirurogeita hamargarren urtemugan, bera aitzindaria izan baitzen azterketa feministak eta genero-arloko lanak egiten.

Liburuan, gai hauek jorratzen dira, besteak beste: feminismoa eta kultura politiko desberdinekin duen harremana, gerra zibilean eta frankismoan emakumeek nozitutako errepresioa, maskulinitasuna eta amodio erromantikoa. Zentroko kide diren Miren Llona eta Nere Aresti historialariek parte hartu dute lanean, besteak beste.

**Liburu honen aurkezpena Maite Albiz Emakumeen Dokumentazio Zentroaren eta Azkuna Zentroaren arteko elkarlanaren emaitza da. Hala, Mediatekan eskuragarri dago zentroak orain dela urte batzuk Az-ri laga zion funtsa.**

Teoria feminista eta genero-gaiak lantzen dituzten 1.200 monografia dira, diziplina akademiko desberdinetakoak, Euskadiko mugimendu feministaren ideiak kontserbatzeko eta dokumentatzeko eta, orobat, ikuspegi ez-sexista duten adierazpen kulturalak ezagutarazteko duten kezka emaitza.

////////////////////////////////////

**Maiatzak 15, asteazkena**  
19:00

Medialab 2. Mediateka BBK  
Sarrera dohainik, gonbidapena  
izanez gero (jaso infopuntuan)  
leku guztiak bete arte.

////////////////////////////////////